

Leioa, 2016eko abenduaren 1a

Zuzendari agurgarria:

Atsegina zait informatzea 2016/2017 Ikasturte Akademiko honetan, beste urte batzuetan bezala, Olinpiada Zientifikoetako fase autonomikoak egingo direla Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateko Zientzia eta Teknologia Fakultatean.

Dakizunez, ekintza hauek Biologian, Fisikan, Geologian, Matematikan edota Kimikan interesa duten eta horiek ikasten gozatzen duten bigarren hezkuntzako ikasleei zuzenduta daude. Dagokion fase autonomikoetan, bigarren Batxilergoan Euskal Autonomia Erkidegoan 2016/2017 Ikasturtean matrikulatuta dauden ikasleek har dezakete parte.

Ondoren, zenbait Olinpiaden datak zehazten dizkizut:

Olinpiada	Izen-emate-data	Proba teorikoa Data	Proba praktikoa Data	Lekua
Biologia	Urtarrilak 13	Urtarrilak 20	Otsailak 3	ZTF/FCT
Fisika	Otsailak 23	Martxoak 3	-	ZTF/FCT
Geologia	Otsailak 23	Otsailak 24	-	ZTF/FCT
Matematikak	Urtarrilak 12	Urtarrilak 13	-	ZTF/FCT
Kimika	Martxoak 1era	Martxoaren 10ean (16etan)	-	ZTF/FCT

Biologiako, Fisikako, Geologiako, Matematiketako eta Kimikako Olinpiadetako diptikoak eta informazio guztia gure web orrian aurki dezakezue hurrengo estekan: <http://www.ehu.es/eu/web/ztf-fct/estudiantes-bachillerato>

Ondo dakizunez, ikasleen parte hartzea Olinpiadetan beren jakituria probatzeko aukera ezin hobea ematen die, baita unibertsitatearekin eta beste ikasle batzuekin lehen kontaktua izateko. Bestalde, fase autonomikoa gainditzeak eta fase nazionalen eta internazionalen parte hartzeko aukera izateak, bere kasuan, esperientzia paregabea suposa lezake beren bizitzan. Horregatik guztiagatik parte hartzera animatzen ditut, eta aldi berean, nire agurrik beroena bidaltzen diet.



Esther Domínguez
 Dekanoa
 Zientzia eta Teknologia Fakultatea
 Euskal Herriko Unibertsitatea

